


ANKAZ GORA

Komunismoa edo kapitalismoa dala; ONU edo Kongo dala; baltzak edo zuriak direala, ara or gure gaurko mundua teatro toki bat bihurtuta. Eta zelako teatroak egin be ganera... Zelako gauza barregarriak ez dira egiten. Eta barregarriak balira bakarrik! Baña geienetan negargarriak izan.

Ikustekoa dago gaur Kongo: batak ainbat etsai il dabezala; beste arek beste ainbeste eta erdi urkatu dabe-

zala; aruntzagokoak ez dakit nik zenbat europatar zati-zati egin eta itxi dabezala. Auxe benetan komedi baltza eta latza gaurko Kongok eskeintzen deuskuna.

Eta bitartean zer egiten dabe ONU'koak? Gixajoak... prakarik barik botau nai dabez euren etxetara; eta, nire ustez, zuur eta azkar ezpadabiltz, ez prakak ze beste edozer be bertan itxi bearke dabe. Orixe benetan lo-



ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

VIII URTEA. - N.º 78

APRILLA (4) 1961

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

tsa Kongo lurreetan ONU'k pasau izan dabena.

Zer pasetan da ba Kongon? Ezer be ez, beste munduko gauzarik beintzat. Len astakeriz eta nabarmenkeriz pillofuta lurpean gorde zan polboreak sua artu dau, eta ia nor doan orain a amatefara. Zuriak edo europatarrak nai eben guztia egin ezin leikeenik ez eben iñoiz uste izan, eta gaur euren egiteen frutua batzen dabiltz. Garratza benetan frutua, odol eta sugarrez eldua. Baña eurak ipiñitakoa dan eskeroz, eurak iruntsi bearke dabe.

Eta Kongon gertatzen dana, orixe berak gertatu bear dau beste leko askotan Zelan dabiltz ba Rodesia eta beste ainbat tokietan?

Orain arte zuriak izan dira ango jaunak. Ez jaunak bakarrik, baita jaungoikoak be, euren iritxiz. Nai izan daben guztia egin dabe. Baltza, besteko barik, atxur edo



tresna bat baño gitxiagotzat euki dabe.

Baña gaur gauzak ankaz gora parau dira. "Zer zuri eta zer arrano, Afrika geurea da, eta doaz arin etxera europatarrok", diñoe afrikatarrak. Eta badabe euren errazo zati bat. Zertan dauke europarrak zertan ara joan eureen tripea ango gixajoen izerdiz loditzera?

Gauzak zuzen ikusi bear dira. Dana da gauza bategaitik: danok Jaungoikoaren semeak gariala aastu egin dogulako. Gure Aita bat da. Danok gara anaiak. Danok deretxo edo eskubide bardiñekoak. Baña aastu egin dogu au, eta ara or mundua ankaz gora: atzoko "tresnak" gobernuen zuzendari, eta jaunak kartzelan. Eta txarra gorik ekusi bearke dogu gauzak asko aldatzen ez badira. Justizi eta zuzentasuna zapaltzen direanean norberen kontra biurtzen dira. Eta kontuz gero...

Antonio Zubizarreta

BATASUNA



Bildurraren batasuna

Batasuna! Ona emen, irakurle, gaurko gizon guztien ezpanetan dabillen berba: "Batasuna!"

Jaungoikoari eskerrak, erne da gure gaurko gizarte edo soziedade onetan be Batasun berba goxo ta xamurra.

Munduko kaxkartu egin da. Naziñoen alkar-urruntasun edo distantziak laburtu egin dira. Gaur Bilbo'n ikusten dogun gizon ospetsu bat, izan leike biar New York'ko "Times" periodikoan ikustea. Gizarteko atal guztiak, batez be txikiak, lotsatu, bildurtu egin dira, euren gizaki edo personalidadea aiiñ txikia dala ikustean. Eta lotsa ta bildur au gizarteko atal txikietan, (ta baita aundietan be), sartu danekoxe, burua markurtu, ta bata besteari laguntza eske asi bear izan dabe.

Auxe berau gertatutea gura geunke kristau-erlegiñoaren atalakaz be. Amets zoroa dala? Ez yat iruditzen amets zoroa danik. Len, ta baita oraiñdiño dempora asko ezta la be, Batasun problema au illun eta aldatz-gora ikusten zan. "Eleiz-batasuna, fatalismoa da!...", esaten zan. Gaur, kontixu, ez garu lengoak. Batasun problema beste arpegi bategaz aurreratuten yaku. Gaur

Eliz-amaren buruausterik aundietan "Eleiz-banatuena Batasuna" da.

Lotsagarria da benetan, Kristok Apaparian esan ebazan berbak entzun orren, "Aita, eurak be bat izan daitezke zuregaz ta Zu niregaz bat garean leger bere jarraitzalleok bananduta, alkar-kan ibiltea. Bearrezkoa da, alkar-matanean bat eginda, etsaiaren kontra "santua" egitea.

BATASUNA ETORRIKO DA!

Batasuna etorriko da. Noiz? Merca gunean. Bitartean, OTOITZA!

Munduko batasunak lortuteko, era tako bideak jarraitu leikez. Eleizen-batasunak lortuteko, bide bat bakarra: "Otoitza!"

Zorakeria da benetan, mundu onetako maltzurkeri ta guzur-bideetatik etorrikoan Eliz-batasunari itxaroten egotea. Batasunak argi ta garbi etorri bear bestela, ez da izango Jesukristok gura eban Batasuna. Politika bide basatuz ezin izango dogu lortu Eliz-batasuna. Gaurko Kristoren Eleizak munduko maltzurrietatik urruti ibilli bear dau. Bear lortu zikinkeri asko ikusi izango dozuz gaurko Eleizan, baña..., badira gaur-gaurko Eleizak, be, bular sendoagaz jokutzen dabeenak! atzeratu, ez bildurtu orregaitik, irakurle!

Aldendu deiguzan, bada, gure adimenduetatik idoi z jantzitako bideak.

Batasunaren problema Jaungoikoaren kuetan dago. Gure gaurko biarrik arrotz na, sakonena, auxe dogu: "Batasuna Jaungoikoaren eskuetatik geureganatu". Zorakeria Otoitzaren bidez! Eztago beste bide bat? Otoitz apal, otoitz bero, otoitz sinistretan, tzuak jadetxiko deusku Jaungoikoaren bidez dik batasuna. Gure lelengo ta... azkeneko biarra auxe da: "Otoitz egin". Batasuna etorriko da, irakurle; ez bildurrik izan.

Gauza lotsagarria izango litzake, bai izan zaren barruan eta bai kanpoan, ainbeste ainbeste jende on otoitzean dagoan bitartean, gu olgetan egotea! Ez yaku on dabilen kuak tolosturta egotea. Danok bat egin otoitz egin daigun.

BATASUNA TA VATIKANOKO IPERREKATU BATZAR-NAGUSIA

Askotan entzun izan dogu joan dauden paldian Eleiz-batasuna dala etorteko bidea.



Ara or Erroma, itxaroten

Anglikanoak Erromarantz?

Otik aora dabillen gaurko barria eta egunkari ta aldizkari guztitako albistea, Inglaterrako erregiña Isabel'ek datorren Maiatzean Aita Santuari egingo dautson ikustaldia da. 1923'an Jorge V'garrenak Pio XI'garrenari egin eutson ikustalditik onuntz, ezta egon angó erregerik Erroman. Egia da, bai, 1951'an, Isabelek Pio XII'garrena ikusi ebena, baiña orduan etzan erregiña, prinzesa baiño. Eta gaiñera U.N.P. (Unión Nacional de Protestantes)'ek ikustaldi onetzaz arpegi txarra jarri eban. Gaur, berriz, ikustaldi onen barria ontzat artu dabe, naiz katolikoak, naiz anglikanoak.

Onetzaz gaiñera, kontuan badokogu, orain iru illebeta Dr. Fisher'ek Aita Santu Juan XXIII'garrenari egiñiko ikustaldia, Anglikanismoak Roma'tzaz bide barri bat artu dauala, esan bearko. Gogoan artzeko gauza da Anglikanoak Eleiza Katolikotik banandu ziranetik Fisher jaunaren ikustaldi au izan dala lenengoa.

Ikustaldi onetzaz berba asko egin da, eta gauza bat dago argi: Dr. Fisher'en ondongo Dr. Ramsey'k esan dauana: "anglikatar parrokuak apaiz katolikoek eta oneik

areri egingo deutsezen alkar-ikustaldiak. Onelako ikustaldi askok alkarrenarteko maitasun eta laguntasuna piztuko eta berotuko dabe. Oraindik dempora asko pasa bearko da ELEIZEAREN BATASUNA ikusi arte, baiña ezta ainbeste itxaron bear munduan kristautasunaren indarra eta Kristok erakutsitako alkar maitasuna ixillean zabaltzeko.

Dr. Fisher'en ikustaldi onen ondore dala esan geinke anglikanoak artu daben erabakia: Pawley kanonigoa laster ospatuko dan "Eleiz - batzar - nagusiko" Sekretariadoagaz berba egitera bialdutea.

Dakizuen lez, Isabel II Inglaterrako erregiña, ta gaiñera angó eleizearen buruzagia da. Baiña Aita Santuari egingo deutson ikustaldi au ezta Inglaterrako eleizearen buruzagi lez, angó erregiña lez baiño.

Esan daiteke gure anai banandua ge-roago eta anaiagoak eta geiago ta urreago dagozela. Eta, jakiña au giro ona dana Konzillorako, onen joburu bat batasuna danezkerero.

Agustín Biain

7. garren orritik dator

emon ezkerro, beingoan egiten dabe juramentu; ebanjelioaren gañean be bardin. —Eta epai-maikoak ez dakie ori? —Bai ondo be; baiña arek be diru apur bat artu ezkerro pozik.

Eta kultura ta justizi ezak beingoan dakekar familiaren ondamentia. Eta aurkitu be ondo aldrebes aurkituten da familia Bolivian. Edozein sistrinkeri naikoa da eskontzako batasuna austeko. Eskontz austea eguneroko kontua dozu emen. Eta egun asko ez dala lege barri bat emon dau gobernua, dibortziorako erreztasun aundiagoak emonez. Katoliko zintzotzat dagozan politiko askok lege orren alde urten dabe. Ori dala-ta, La Paz-ko artzobispoak

eskomulgatu egin dauz lege ori baieztu dabanak.

LIDER 'ANTZEKO BAT

• Bolivian esan leike eztatola lider antze-korik. Beste Fidel Castro bat balego, Kuban baiño bide errezagoa legoke Bolivian komunismoa sartzeko. Gizon bat badagola esan leiteke, lider itzurakoa: Lechin. Azkeneko egumetan eskoi aldera jo dabela dirudi, baiña kontuan eukiteko gizona da bera. Iparameriketarrak konturatu dira, eta euren artean dauke adiskide egin naiez. Lortuko ete dabe ezer: Lechin indio utsa da, eta indio onek aurretik arpegi polita erakutsi arren ba-daki atzetik ostikadea emoten.

Jon Kepa Guarrotxena

AITXE IMANOLEGAZ BERBETAN

Ondo ezetuten dogu Aitxe Imanol. Bera da Bèrmioko Kristiñau Itxas Gaztediko kapellau. Bera da gure direktorie. Berak batun gaitxuz, eta omon dosku gogue ta animue, arraintzalien alde zeuzer eitxeko eta Kriston dotriñie geure mutil lagunen artien geldì geldike sartzieko. Aste Santuen beraiñe yuen gaiñen, eta Dakarreko kanpañien ganien preguntetxu batzuk egin 'tsaguzen.

—JAUNE, APREZIYETEN DAUBIE
ARRAINTZALIEK EURON BIARRA?

Bai. Endemas frai Albertona, neure lagunena. Berak, laguntziño materiyal andiye omoten 'tsoie. Arregla eitxen 'txuz radiyuek, eta yabon geixuek. Beran biarra total andiye da. Bèrmioko barkuetan bakarrik eztau biar eitxen. Goitxarren barkuetan be bai. Eta astiye dakonien, eskualdun frantsesan ardurie be okitxen ezan dau.

Nik eitxen dotena, barriz, gatxau da apreziyeteke. Interprete eitxen 'tsatie, geixuek portoko dispensaiyora eruen, frai Albertori biarrien lagundu, arraintzalien etsietara kartak eskribidu, patroien bitxartekue ezan, eta abar.

—ETA ERLEJIÑOKO GAUZETAN
ZER EGITXEN DAU BEORREK?

Gauze andirik ez. Jentie eztau ondiño preparata, erlejiñuen laguntziño andirik artzieke. Domekatan mezie ta sermoitxue esaten 'tsatie portuen, bertako barkon baten. Sarrilxen, urraintzale gitxi ogoten diez entzuten, geiyenai itxosuen ogotie kuadraten yatzoie-ia. Iñoiz egin 'tsatie radiyotik be berba, erie okin dotenien. Bai, egiye' esateko, Dakarreko ibilkerie —oraiñatekue beñik bein— gogorreiyie da, eta leko gitxi itxitzen 'tsoie arraintza-

lici, erlejiñoko gauzetan pentsateko ber Gero, ba-dakizue: kause askoaitxik, gur erriyen fedie asko otzitxu de aspaldiyon. Orrexeitik, arraintzale geiyenak eztez k paz sazerdotien biarra bi'dan moduen apreziyeteke, eta eztaubie sentiten Eleizien laguntziñuen biarreezanik.

—AURTEN EZ I DE YUEN ONDO
DAKARREKO KANPAÑIE; ZEITXIK
EZAN DA ORI?

Ez ein kasurik. Batzuk ondo irabazi dau. Lau illebetien ein daubie, ipez sei illebetien egin zaubiena. Beste batzuk, barriz, eztez ezan ain suertosuek, eta arrain gitxi atrapa daubie. Gure mandako itxosuen pax saten dan lez, bardin, bardin: batzuk ditxo asko irabazi, beste batzuk iye bapez. Bai aurtén Dakarren, danak irabazi biar ez zaubien asko geiyau. Orrexeitrik ezan d frakasue aurtengo kanpañie. Ez, gitxi irabazi daubielakon, asko geiyau irabazi zaubielakon baiño. Ta Freetowneko portuek ofisi dau frakasu orren erru guztiye. A portue ezta ogon ondo preparata, 17 batzuk matxori atenditeke. Barko batzuek bebi ratzi ta amar egun galdu zeitxuzien portuen amarrata, arraiñe deskargateke t edurre artzieke begire. Nire ustez, aurtén ezan da —besterik ez— aurtengo frakasu motibue. Barko gitxiu yuen balekizien beste oillar batek yoko zauen, Dakarreko atun asko dau-te.

—SOLUZIÑO ONA ETE DA GURE
ARRAINTZALIENTZAKO NEGUEN
DAKARRERA YUTIE?

Bai. Auntxek esan 'tsatie, Afriken arrau total asko dauela. An, erriko organizaziñu bakarrik falta da. Besterik ez. Ango fakie

riyek ezteiz ondiño biar dan besteko kapa-
zak, arraiña konjelateko ta edurre eitxeko.
Afrike ezta Europa; auntxek, esatie lez, asi
diez an industriyek imintxen, eta arrain fa-
brikek eztakoiez ondiño iru urte bez. An,
iye dana dau ondiño eitxeko. Urte asko pa-
sako diez ondiño, arrain instalaziñuek bi'
dan moduen imintzeko, eta arraintzalien
problema guztiyek erresolviteko. Baie sa-
soi ori datorrenien, orduen bai ezango dala
soluziño ederra neguen Dakarrera arrain-
tzen yutie. Eta ba-leitxeke, udebarriye aka-
ba artien bertan geratutie be.

—ZEITXIK UDEBARRIYEN BERE?

Nire ustez, urte gitxi barru Bermioko ar-
madoriek txapazko konjeladore txikiyek
egitxen asiko diez, Frantziko norteñuek
asi dizen lez. Olako enbarkaziñuek —dude
barik— beti ezango diez gure mandako
itxosuen atun geiyen atrapako daubienak,
eta bentaja andiye atarako 'tsoie beste guz-
tiyei. Au ukusitxe, beste patroiek be geldi
geldike asiko diez olako barkuek eitxen,
eskualdunek aurrerazaliek dizelakon eta
dakoien gitxiyegaz korformaten eztizela-
kon. Progresuen legie gogorra da; ta berai-
ñik eskapaten dabilitzezenak, guzurrezko
bidie artun daubie eta goiz edo berandu
damutu egingo diez. Barko konjeladoriek
larga eingo 'tsoie bokartan kostiereri, eta
beti ibilliko diez atunetan: neguen Afrike
naiz Ameriketako ur epeletan, ta uden gu-

re mandako itxosuen. Arraintzien ebuluzi-
ño andi baten aurrien bizi gariez. Ezetuten
dotez patroei batzuk, gauze onegaz ondo
konturetute dauzenak, eta otorkizuneri ar-
pei omoteko, auntxerik kontuek ataraten
dabiltezenak. Edo progresa edo il: auxe



Aitxe Imanol Dakarren, mariñero yantzitxe

da gizonan patue. Kanbiyo onek zerukusi
andiye okingo dau gure erriko bizimodu
sozial eta errelijosuaz; eta danok, guk sa-
zerdotiok eta zuek Kristiñau Itxas Gazte-
diko mutilok, ondo preparata egon bi'du,
momentu ori datorreneko. Onen gani-
en beste baten berba egingo dogu. Gaurko,
naikue da.

PEDRO AROZTEGI

Bermioko Kristiñau Itxas Gaztedikue

2'garren orriik dator

goan Batzar-nagusiaren sustrai edo moti-
boa. Ez dot üste egia danik. Ona emen
Batzar-nagusiak erabiliko daben buruau-
ste edo problemarik printzipalena: "Eleiza
Katolikoaren oiturak aztertu atondu, ba-
rriztau ta gaur-gaurko munduari aurrez-
aurre begiratuteko eran ipiñi". Ez gaitza,
bada, bildurtu Batzar-nagusiaren ostean
Eliz-batasunik ikusi ezin badogu.

Ona emen Aita Santuaren berbak gauz
onen buruz: "Erromatik urrun dabilzenen-
tzat be ikuskizun arrigarria izango da Ba-
tzar-nagusiaren egi, karidade ta Batasuna;
ikuskizun arrigarri au ikusi ondoren, Jesu-

kristok Batasunaren alde bere Aitari zu-
zendu eutsan otoitza, eurak be zuzendu
daien" (Ad Petri Chatedram). Batasuna ez-
ta izango, ba, Batzar-nagusiaren Jelengo
puntua. Lelengo, Eleiza Katolikoa ornidu
ta apaindu bear dogu, Eleiza Katolikoaren
edertasuna ikusi ondoren, danak, bai sor-
talde ta bai sartalde, bai Ego-alde ta iparral-
de, Erromako Eleiza "Santura" jo daien.
Ona emen Batzar-nagusiaren programa.

Ezer ez dogula lortuko? Geugan dago!
Gura badogu, etorriko da Batasuna! Otoit-
za, irakurle, otoitza!..

Idoyaga'tar J. Xabier



ALEMANIARA BIARREAN

(Emigranteak)

1960, ALEMANIKO URTEA

Españarrak geienetan ardura gitxi izaten dabe aberria itxita atzerri lurretara joateko. Emigranteak izan dira beti espainarrak: Ego-Amerika, Brasil, Australia... Baiña aurtengorarte Alemaniara orrenbeste etziran joaten. Aurtengoa, barriz, benetakoa izan da. Alemaniko uri guztietan espainarrak eundaka ta millaka dagoz. Edo anaia, ala lengusua, edo laguna, danok daukogu nonor Alemanian. Alemania ago guztietan ibilli da, ta batez be, ago gazteetan. 1960'n, ba, Alemanira joan ziranak geienak gazteak ziran, biargiñe gazteak, mutillak eta neskek.

Atzerri-joate onek bere problemak daukoz, itaun gatzak. Alemanira joan diran gazteak ondo prestuta joan dira? arkituko dabe bere biarlekua? Emen baño obeago ala txartoago egongo dira? Fedea edo animako garbitasuna galdu ala sendotu egingo dabe?

BIARRA

Biarraren amesak eroan dau Espainiko gende gaztea Alemanira; biarra gura eben ara eldu ziran guztiak. Baiña batzuk amesa beteteko ere izaten daben hitartean, beste batzuk, ostera, etxera barriri etorri bear


izan dabe, biarlekua ezin aurkiturik. Amakari gertatu yake ori, etxera biurtzea, baiña bertan geratu diraneri bere, gauzak etxetik ez ain ondo etorri. Gabon-jaiak gurasoekan igaroten etorri diranak konta euskue zer edo zer.

Alemaniarra igarotzean, batzuk alako biar baterako egiñak egozan, biar berezi batera egiñak, eta berezitasun orretan itxaroten joan ziran Alemaniara. Baiña an ez deute euren espezialidadeari jaramonik baperegin, edozein biarretan sartu dabez, eta olan euren biarra gogobakoa da. Ta ori eztago ondo, ta txarto dago kontratua. artez egin da gero kontratu orreri indarrrik ez emotea, edozer gauza egitea kontratoaren lepotik. Eta beste askok eztaikit zer egin bear izan daben biarlekua lortzeko. Biar berezirik ez euken eta ortxe ibilli dira ara ona, azkenian leku zantar baten geldituko. Gixajoak!

Dana dala, danak diñoskue biarra badagola Alemanian, baiñan ara doazen biarriñak oso aaztuak dirala. Biarra asko, baiña guztiz gogorra (nun ez?). Esate baterako, italianoak Alemaniko sindikatoetan leku berezi bat dauke, espainarrak, ostera, eztabe oraindik leku ori lortu. Gero, bertako Konsuladua eta Enbajadea orain urte biko personalagaz eginda dagoz, iñor gela gotu barik, ta ara joan diran espainarrak barriz, amarratu egin dira, ta arreek ez dira danerako egiten. Atara kontuak.

(Jarraitzeko)

P. M. S. Pedro



EGOAMERIKA BIDE-KURTZEAN

Bolivian komunismoak ateak zabalik


Egoamerikaren ordua eldu da, bide-kurtze baten aurkituten yaku politikearen zein kulturaren aurrean. Eta oin inportantzi aundiko momentuan katolikook ezin aztu geinke Egoamerika. Kulturaren aurrean erlijioaren aurrean bide bat ortu bearrean aurkituten da, ta guk bide zuzena erakutsi geinkio. Egoamerikaren ordua, geure ordua dogu katolikook.

Denpora asko ez da Amerika onetara etorri naizela, baiña beingoan ikusten da emen dagon artekatasuna: politikan eta erlijioan —kulturari—. Oraingoan Boliviaren gañean esango deusuet zeozer. Bolivia. Egoameriketako naziñorik atzeratuenetakoa da, ostera baleiteke orregegaitik interes geienekoena izatea. Emen dana dago egiteko, iñoiz aturrak ikutu bako basoan lez.

tarrean komunistak lo eztagoz: euki be badauke ate zabal bat idigita Bolivia onetan. Len esan dotan lez, kultura arloan dana dago egiteko; eztago justiziaren errastorik goikoetatik asi ta berengoetaraiño; eta familia barritz deseginda dago: ara or komunisten atea zabalik.

EZ KULTURA, EZ JUSTIZI, EZTA FAMILIARIK BE

Bolivia analfabetoz beterik dago. Au egi negargarria da. Orainzu arte erri geienak eskolarik be eztabe euki. Zorionez azkeneko urteotan asko egin da alde orretatik. Baiña oraindiño ba-dago zeregiña ugari instruziño kontuan. Eta danok dakigun



Komunistak danari guzurra diñotse

Ekonomia be atzera dago, billotzik lez. Ointzu arte kanpotarren eskuan egon da bertoko aberastasun guztia. Eta kanpotar askok boltxikoak ondo bete dabez emengo kontura. Asko ezala gobernuak eskua sartu dau arlo onetan, eta naziñoa gelditu da aberastasun guztiekaz. Baiña zoritxarrez aberastasun ori il da lez gelditu da, emen aberastasunak esplotateko modurik eztagolako. Ekonomí arloan dana dago egiteko dana ezerezean. Ortik ikaragarrizko problemak sortuten yakoz gobernuari eta beti dago kilikolo, segurantzaz barik. Eta bien bi-

lez, kulturarik ez dan errian kriaduak izan oi dira ugesaba, —bizioak, birtute—.

Justizia zer dan be ez dakie emen. Danak ostuten dabe al daben guztia. Egun baten La Paz-ko "Justizi etxearen" aurretik pasatu giñan. Etxe aretako eskallertan andrasko asko egozan jesarrita. Mire egin da, nigaz yoyan bertako bateri itaundu neuntzan: —onek andra guztiok zer egi ten dabe emen? Justizi eske etorri dira ala? —Bai zera. Orrek danak testigu faltotzat egiteko dagoz or. Diru apur bat

3'garren orrira

EZKONTZARAKO ORDURIK ONENA NOIZ

Ezkontza dala eta ez dala, zenbat gauza entsuten ete dira! Oraindio ontxe irakurri dotana da: Italiako andra-gizon gaztienak ez dauke ogeta amabost urte bien artian be, eta oster, Ingalaterran, ia gaur bertan, zineko gizon bat larogei urteekin ezkondu da eta bera baño berrogei urte gaztiagoa dan bategaz. Gertaera oneik ez dira noiz edo noizkuak. Ez dakit nungo zein ogei urteekin alargun geratu dala, besteen bat zartzaroan ezkondu dala eta ainbat olako entzuten oituratuak gagoz, Ipar Amerikan, Ingalaterran eta orretan zarrri ezkontzen dira ogei urtetik berakuak be eta inor be ez da arritzen; emen oster a ogeta-amar inguruan ibiltzen dira ezkontza danak.

Eguneroko jazokera oneek kili-kili egiten deuzkue; eta ni ezin nei ezkondu ogei edo ogeta bi urteekin? Edonoiz ezkondu geinkela ta ziri egiten deuzkue. Noz da be, orduan, ezkontzeko ordurik egokiena? Al dogunien? Zuen burueri askotan egin deutzazuezen galdera oneekin natorkizue gaur,



Ezkontza ganza serfo da

ezkongai lagunak. Ez deusuet nik, ezin nei eta, erabaki argi ta garbirik emongo. Azken erabakia zeuena da. Alan da guztiz be, argi bat biztu nai deusuet zuen eztabaidetan ondo jokatu daizuen.

UMEAK ANDRA-GIZON?

Lenengo-lenengo buruan ondo baño obeto sartu bear doguna auxe da: ezkontza eztala umeentzako, eztala neska-mutilkoxkorrentzako. Ezkontza olgeta dala uste dabe askok eta, jakifia, orretarako ez da bear

ez urterik ez sentsunik; gogua bakarrik. Au da ainbat neska-mutiko errurrien artian egiten diran ezkontzeen irria. Eta bene-benetan auxe da gaurko mundu oneko arriskurik aundiena be: ezkontza olgetatzat eukitia eta ezer pentsatuz ge Sakramentu onegaz betiko alkartzia.

Ezkontza ez da, ez, olgetan ibilteko gauza, ondo eta luzaro ausnartuta egin be dana baiño. Dirua edo gogoa eukitia ez izatia ezdira naiko; gizontasuna, familian ten beartasunen artian zintzo jokatzeko gauza dan gizontasuna bear da, eta ogei urteko ezkongaien artian ez da zarrri. Orretarikuen artian ametsak izaten dira ugaribere bez ixiltzen diran ametsak, eta askotan ezkontza ber-bera be amets utza, politen zoragarriena baiña orixe: amets utzuta Bizitza guztia argitsua, arantzarik bageleuna eta xamurra beixantzen jakue. Baiña errukarriak benetan, begiak zabalduta aurrez-aurre dauken bizitza gogorra ikusaten daben egunian. Damutuko dira baiña alperrik, berandu.

"Andra-gizon gaztetxuak zarrak be obeto eta ariñago egokitu leitekez". Be askotan entzuten da ori eta baita be orrelako asko, eta bitartean senar-emazbarriak emoten dabenaz, aspertuak, be bearrian dabiltenak ikusten doguz. Be orreri zer? Noz egokituko dira orretan. Amets polita da, bai, ori baiña geienetan soten dana ez beinpein. Orretarako ez naiko gaur ezagutu eta biar egundoko tekuak eukitia. Ametsak joan egiten diren edertasuna urtu, bizitza gogorra piztu orrean eta orduan zer? Orduan maitasun benetako maitasunak bakarrik irauten da eta ogeitik beerako ezkongaien artian bizitza baño begiak luzeagoak izaten dira; be bisateko: ezkongai zintzoari baño edertari, aberatsari geiago begiratzen jako.

Ezkontzako lokarria ez litzake, izateko ez, kurutzea, ez beti biotzian zartaka dabil arantza, maitasun zintzoa eta luzarot sendotua ugariago balebil. Onetarako amekeriak eta ametsak alde batera laga be dira eta ogeitik bera dabilzan gaztien artian nekez.

Auxe edo esan nai dozku 1958'an Ingalaterran egindako estadistika batek: 18 urte barik ezkondu ziran andrazkuen artian eunetik 25'ek ezkontza apurtu egin eta 22'tik eta 24'ra ezkondu ziran eunetik 5 bakarrik.

Jauhari eskerrak, emen gure erririk dirua dala edo biarra edo au edo bestiala, ez dogu ezkontza gaztiegien arriskurriki baiña gu be geruago eta beerragotuz!
(jarraitzeko)

ARRIOLA